

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **78/2021 Mozioa, urriaren 21ekoa, hiltzeko haragi-instalazio bat ezartzea eta ustiatzea sustatu eta babesteko**

Arabako Batzar Nagusi hauetako Nekazaritza VIII. Batzordeak, 2021eko urriaren 21ean egin-dako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

78/2021 Mozioa, urriaren 21ekoa, hiltzeko haragi-instalazio bat ezartzea eta ustiatzea sustatu eta babesteko.

1. Arabako Batzar Nagusiek administrazio eskudunei eskatzen diete sustatu eta babestu ditzatela hiltzeko haragi-instalazio bat ezartzea eta ustiatzea, abeltzaintzaren sektoreari zerbitzua emango dien eta osasunaren, ingurumenaren eta animalien ongizatearen arloko legeak betetzen dituen kudeaketa pribatu baten bidez.

2. Arabako Batzar Nagusiek administrazio eskudunei eskatzen diete ezen, behin-behinerako, Aiaraldeko abeltzaintza-ustiategiei erraztu dakiela azienda EAEn dauden hiltegiara eramatea, garraiorako laguntzen bitartez, ezarriko diren baldintzen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 21a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**